

BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

Bezeroarekiko harremana estua izango da, lagun arteko giroa egongo baita gure jatetxean. Bezeroak erakartzeko hasieran festa moduko bat antolatuko dugu eta behin jatetxea ezagutu ondoren, berriz joateko gogoia izango dute. Honen ondorioz, probatu dutenek beste pertsoneri esango diete eta bezero berri gehiago etorriko dira.

Bezeroak mantentzeko, deskontu txartela bat sortuko dugu, etortzen diren bakoitzean puntuak lortuz joateko eta horrela 10 puntu lortzerakoan bazkari bat dohainik emango zaie. Bezeroak erakartzeko, orde, jatetxe inguruan dagoen lasaitasuna, aparkatzeko parking handia eta prezio merkeak erabiliko ditugu webgunea, sare sozialak eta publizitatearekin batera.

Bezeroek webgunea erabiltzeaz gain, telefonoz deitu nahi baldin badute erreserbaren bat egiteko aukera izango dute. Gogoz erantzungo zaie, beti modu onean eta etxekoak izango balira bezala. Horrela ez dute lotsarik izango gurekin buruz buru hitz egiteko, beste hainbat negozioetan gertatzen den bezala. Honen bidez, erreserba egiteko jatetxera etortzea saihesten dute.